

Naizen Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako adin txikiko transexualen familiak biltzen dituen elkarte da.

11 NAIZEN Elkartearekin solasean:

Naizen.

Batzuetan ai, eta bestetan ze.

Libre eta aske. Beti haize.

Nahi zen, eta naiz da. Eta izen.

Zuk jarri zenion.

Izena duena bada, eta bazenari, badenari,
beti izan denari, bazegokion.

Izendatzea, izatea izen ere.

Hazi ginen, eta hazi gara.


Eta hasi zarete.

Ikusten duzu?

Ikusten zaitut.

Ai, ze, ai ze, haize naizen.

Naizenetan Naizen!



12 IKUS DEZADAN

Musika: Xabier Zabala

Hitzak: Ekaitz Goikoetxea Asurabarrena

Ahotsak: Kai Nakai eta Iñigo Etxezarreta (ETS)

Festaz festa,
muxuak irribarrezka,
zu ile-kixkur galaia
eta ni zakildun neska...

Ze ni, ze zu?
Gorputzera zenbat mezu!
Zalantzak balantza dira
ta konplexuak konplexu.

*Pentsaezina naizela
nola pentsa dezakezu?
Errezago maiteko det
zuk maite badezu!*

Zatoz, zatoz, ile-kixkur; zatoz, beltzaran
isilune hauek uler ditzadan,
etorkizuna ez da iragan,
ezpainak lehor, hankak dardaran...
Azkenik ez duen azken boladan,
gauak oparitu digun baladan,
bil nazazu zure begiradan,
ikusten nauzula ikus dezadan.

Astez aste,
gauak heltzen dira gazte,
baina libre izateko
nor da nor eta nor aske?

Ze lur, ze su?
Jakin-mina katalexu,
neska guztiei horrela
begirutzen al diezu?

*Pentsaezina naizela
nola esan dezakezu?
Pentsagarri izango naiz
pentsatzen badezu!*

Zatoz, zatoz, ile-kixkur; zatoz, beltzaran
isilune hauek uler ditzadan,
etorkizuna ez da iragan,
ezpainak lehor, hankak dardaran...
Azkenik ez duen azken boladan,
gauak oparitu digun baladan,
bil nazazu zure begiradan,
ikusten nauzula ikus dezadan.

Zatoz, zatoz, ile-kixkur; zatoz, beltzaran
isilune hauek uler ditzadan,
etorkizuna ez da iragan,
ezpainak lehor, hankak dardaran...
Azkenik ez duen azken boladan,
gauak oparitu digun baladan,
bil nazazu zure begiradan,
ikusten nauzula ikus dezadan.